

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure enpresarentzat funtsezko jarduerak.

**Diseinua, hornitzaileekiko jarrera, publizitatea eta bezeroen leialtasuna:**

- **Diseinua:**

Diseinua izango da gure jarduera klabea. Guk gure artean Zapakoien diseinua egingo dugu, eta gure diseinuak eta bozetoak Iker Udaondori emango dizkiegu eta bera izango da zapakoa sortzen duena fisikoki. Gure diseinuak egiteko erosotasunean eta edertasunean pentsatuko dugu.

- **Hornitzaileekiko jarrera:**

Guk gure hornitzaileekin jarrera eta erlazio ona izan behar dugu. Gure produktua ez da ezer hornitzaileen produktu eta zerbitzuekin. Hornitzaileei produktuak erosiko dizkiegu, beraz haiek dirua edukiko dute. Gainera, gure zapakoiak haien materialez eta produktuz eginda egongo direnez, haiek ere meritua izango dute.

- **Bezeroen leialtasuna:**

Gure bezero segmentazioa oso garrantzitsua izango da. Guk lortzen dugun dirua bezeroen erosketetatik etorriko da, beraz, hainbat bezero leial behar ditugu. Horretarako, bezeroekiko interes handia erakutsi beharko dugu haiek gure Zapakoa behin baino gehiagotan eros dezaten. Bezeroekiko arreta zerbitzuak edukiko ditugu, bai webgune, bai presentzial bidez. Bezero leialak lortuko ditugu, haiek dituzten arazoei aurre eginez. Gu saiatuko gara gure produktua haien arazoei aurre egiteko hoberena izatea. Arreta zerbitzuak jarriz haiek gure produktuari buruz dituzten galderei erantzuteko.

- **Publizitatea:**

Gure enpresarentzat oso garrantzitsua da publizitatea. Nahiz eta bezero leial batzuk izan nahi ditugun bezeroak nonbaitetik lortu behar dugu. Publizitatea sare sozialen bidez bidez promozionatuko dugu. Behin bezero leialak izanda erosle berriak egin nahi ditugu.